

GEROA

GEROA II

LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BORONDATEZKO
GIZARTE AURREIKUSPENEN PLANAREN PRESTAZIO

ARAUTEGIA

2023/03/30ean EGUNERATUA

2023

www.geroa.eus

Lugaritz Pasealekua 27 - 20018 Donostia

T. 943 31 70 22 / F. 943 31 72 80

1. ARTIKULUA: PLANAREN ETA BAZKIDE BASBESLEEN IZENDAPENA	4
2. ARTIKULUA: HASIERA DATA ETA IRAUPENA	4
3. ARTIKULUA. BAZKIDE OSO EDO ARRUNT, PASIBO ETA ONURADUNEN BARNERATZEA	4
4. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK	4
5. ARTIKULUA: PRESTAZIOAK.....	4
5.1. PRESTAZIOEN ORDAINKETA.....	4
5.2. BIZI-AGIRIA.....	7
5.3. ALDI BATERAKO ERRENTAK KALKULATZEKO FINANTZA PARAMETROAK	7
5.4. BIZIARTEKO ERRENTA GERORATUAK KALKULATZEKO PARAMETRO AKTUARIALAK.....	7
6. ARTIKULUA: ADMINISTRAZIO GASTUAK.....	7
7. ARTIKULUA: BAZKIDE OSO EDO ARRUT, PASIBO ETA ONURADUNEN INFORMAZIOA ETA DEFENTSA	7
8. ARTIKULUA. PLANAREN JARRAIPEN BATZORDEA.....	8
8.1. OSAERA	8
8.2. JARRAIPEN BATZORDEAREN EGINKIZUNAK.....	9
8.3. JARRAIPEN BATZORDEAREN DEIALDIA.....	9
8.4. JARRAIPEN BATZORDEAREN ERABAKIAK	10
9. ARTIKULUA: PLANAREN IRAUNGINTZE ARRAZIOIAK ETA ONDAREAREN HELBURUA	10
XEDAPEN IRAGANKORRA	10
AZKEN XEDAPENA. INDARREAN SARTZEA	10

1. ARTIKULUA: PLANAREN ETA BAZKIDE BASBESLEEN IZENDAPENA

Planaren izena GEROA II LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO PLANA da,

Planaren bazkide eratzailleak honako hauek dira:

ADEGI, Mikeletegi Pasealekua 52, 20009 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin

Sindikatuak:

ELA, Consulado kalea, 8, 20011 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin

LAB, Pokopandegi kalea 9, 20018 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin

CC.OO, Carlos I kalea 1, 20011 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin

UGT, Catalina de Erauso kalea 7, 20010 Donostia- San Sebastián, Gipuzkoa helbidearekin

2. ARTIKULUA: HASIERA DATA ETA IRAUPENA

Entitateak bere jarduera 2017ko Urtarrilaren 1an hasi zuen eta bere iraupena mugagabea da.

3. ARTIKULUA. BAZKIDE OSO EDO ARRUNT, PASIBO ETA ONURADUNEN BARNERATZEA

Planeko Bazkide Pasibo eta Onuradunak dira eta izango dira, GEROAko Estatutuetan ezarritakoa jarraituaz, prestazioaren ordainketa aldi bateko finantza errenta edo aldi baterakoa biziarteko errenta geroratuan jasotzen dutenak. Honez gain, 2015/06/30 ondoren sortutako eta Finantza Errenta eran kobratzen ari diren Bazkide eta Onuradunak, prestazioaren kobrantza eskubidea onartu zaien unean izaera hau eskuratzen dutelarik.

4. ARTIKULUA. ESKUBIDE EKONOMIKOAK

Eskubide Ekonomikoak GEROA I Enpleguko Gizarte Aurrikuspen Planeko prestazioei dagozkien zenbatekoak dira, zeinaren ordainketa finantza errentan edo finantza errentan biziarteko geroratuarekin burutzen da, GEROAko Estatutu eta Arautegian ezarritakoa jarraituaz.

5. ARTIKULUA: PRESTAZIOAK

Prestazio motak, haien ezaugarri eta zenbatekoak Entitateko Estatutuko 25 eta 26. artikuluetan zehazten dira.

5.1. PRESTAZIOEN ORDAINKETA

5.1.1. ESKAERA EPEA

Prestazioetarako eskubidea, aurrezte zein arriskua dutenak, gertaera eragilea izan eta hurrengo egunetik izango da eraginkorra, ondorio ekonomikoen eguna kontuan hartuta, betiere eskaera, onespena izan eta hurrengo lau hilabeteetan eskatzen bada, edo ezintasunaren kasuan, ebazpen

administratibo edo sententzi judizialaren hurrengo lau hilabeteetan. Bestela bada, ondorio ekonomikoen eguna ebazpen-egun bera edo ondorengoa denean, pentsioa eskaera-egunaren hurrengo egunetik sortuko da. Baina ebazpen-eguna ondorio ekonomikoen egunaren ondorengoa bada, ebazpen-egunetik prestazioaren eskaera-egunera dagoen debora-tartea soilik hartuko da epez kanpoko denboraldizat.

Epez kanpoko epealdizat ezarritako epe amaieratik eskaera data arteko denbora-tartea hartuko da, eta tarte horregatik eragin ekonomikoa izango du.

Osatugabeko prestazio edo mobilizazioak, sei hilabeteetan mantenduko dira Entitatean, epe hori igarota, dokumentazioa itzultzen saiatuko da edo posible ez balitz deuseztatuko da. Eskaera hori ez da jasotzat hartuko.

5.1.2. PRESTAZIOAK ORDAINTZeko MODUA

Prestazioen ordainketa modua, prestazioaren kobrantza eskubidea onartzen den unean "GEROA I Enpleguko Gizarte Aurrikuspen Planean" dagoen eskubide ekonomikoen zenbatekoak zehaztuko du.

Prestazioak, Bazkide Pasibo edo Onuradunaren kontu-korrontean ordainduko dira, betiere titularra bada.

Prestazioak, behin ordaindu direnean atzeraezinak dira, Entitateari egotzitako akats posibleen kasuak salbuetsirik. Horregatik, ezingo dira atzera egin ez arrazoi fiskal ezta beste eragatikoenatik ere.

Prestazioa errenta finantzarioa moduan ordainduko da; beti ere, GEROAn prestazioaren kobrantza eskubidea onartzen den unean "Errenta Sortzen duen Zenbatekoa" lortzen bada, ondoren zehazten diren kasu bakoitzean:

$$\text{ESZ}_{1. \text{urtea}} = \text{KAKO}_{0. \text{urteko gehienekoa}} * \%_{0. \text{urteko gehienekoa}} \quad \text{bertan,}$$

ESZ 1. urtea = Errenta sortzen duen zenbatekoa 1. Urterako
KAKO 0. urteko gehienekoa = 0. urteko Gehieneko kontingentzi arrunten kotizazio oinarria.
% 0. urteko gehienekoa = 0. urtean GEROAri egindako gehieneko ekarpen ehunekoa.

Zenbatekoa gorantz biribilduko da, zenbaki osora.

1. Eskubide ekonomikoak nahikoak baldin badira gutxienez ESZri (errenta sortzeko zenbatekoari) dagokion hileko errenta ordaintzeko gutxienez 5 urte edo gehiagoz eta 20 urte baino gutxiagoz, prestazioa kapitalean izango da, salbu eta bazkideak eskaera egiten badu 5 eta 20 urte bitarteko aldi baterako finantza-errentan kobratzeko. Bazkide pasiboak edo onuradunak errenta aukeratzen badu, errenta hori gizarte-aurreikuspeneko plan honetatik ordainduko da.
2. Eskubide ekonomikoak nahikoak baldin badira gutxienez ESZren hileko errenta ordaintzeko gutxienez 20 urtez edo 91 urte eta 2 hilabetera iritsi arte geratzen diren urteez, prestazioa aldi baterako finantza-errenta gisa kobratuko da epe horretan bertan.

Prestazio bakoitza kasuetatik zeinetan dagoen zehazteko, errentak interes-tasarik gabe kalkulatu dira. Behin dagokion kasuan kokatuta egonik, hasierako hileko errenta, une bakoitzean indarrean dauden parametro teknikoekin kalkulatu da.

Salbuespenak

1. Bazkide langile, ezkontide edo erregistratutako izatezko bikote bestelakoen onuradunak

25 urtetik beherako seme-alabak edo minusbaliatuak ($\geq \% 65$): Errenta finantzario moduan kobratuko dute hileroko zenbateko berean 25 urte bete arte.

25 urte bete arte geratzen diren urte kopurua 5 baino gutxiagoa izanez gero, kapital moduan kobratzeko aukera dute.

Seme-alaba minusbaliatuen adina adingabekoenarekin parekatuko da. 25 urtetik beherako seme-alabarik ez balego, seme/alaba minusbaliatuak prestazioa osorik kobratuko lukete kapital moduan.

Errentaren gutxieneko zenbatekoa ESZ izango da. Muga honetara iritsiko ez balitz, kapital moduan kobratuko lukete 25 urte bete arte geratzen diren urteen proportzioan (seme-alaba minusbaliatuaren adina adingabekoaren parekoa izango da).

Salbuespen gisa, minusbaliotasuna duten 25 urtetik gorako seme-alabek, eta adin parekagarriko 25 urtetik beherako anai-arrebarik ez dutenek, errenta moduan kobratzeko aukera izango dute, erretiroa hartu duen bazkide baten baldintza beretan.

Gainontzeko onuradunak: kapitalean.

Estatutuetoako 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, kapital erako prestazioak GEROA I Enpleguko Gizarte Aurrikuspen Planetik ordainduko dira.

2. Ezintasun Iraunkor Absolutuaren edo Baliaezintasun Handiaren ondorioz emandako gertakarietatik eratorritako prestazioak

Ezintasun Iraunkor Absolutuaren edo Baliaezintasun Handiaren ondorioz emandako gertakizunetatik eratorritako prestazioen kasuetan, Estatutu honen 5.1.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, dagokion ordaintzeko modua Errenta bada, bazkideak aukeratu ahal izango du errenta ESZaren bikoitzaren arabera kalkulatzea (betiere ateratzen den iraupena gutxienez 5 urtekoa bada), eta horrela haren epea murriztuko da, horrek 5.1.2. artikuluko parametroen arabera kalkulatuako ordaintzeko modua inola ere aldatu gabe.

5.1.3. ERRENTEN ITZULTZEA

Kasu guztietan, plan honetatik ordaintzen diren itzultzeen ondoriozko prestazioen onuradunei, Plan honetatik ordainduko zaie, kobrantza mota edozein delarik.

5.2. BIZI-AGIRIA

GEROAKo aktuario-errenta baten hartzaileak konpromisoa hartuko du Entitate honi urtero bizi-agiria emateko, eta prestazio horren ordainketa dokumentu hori entregatzearen menpe egongo da.

Aktuario-errenta bateko hartzailea hiltzen bada, oinordekoek horren berri eman beharko diote GEROAri, eta hori egiten ez badute eta hilabeteko ordainketarekin jarraitzen bada oinordekoei ez dagozkien hilakoak itzultzea eskatuko zaie. Bete ezean, auzibidera joko da.

5.3. ALDI BATERAKO ERRENTAK KALKULATZEKO FINANTZA PARAMETROAK

Errentak %1eko hasierako interes tasarekin kalkulatu dira, eta hilabete amaieran ordainduko dira urteko %0,5eko gutxieneko balio handitzea barneratzen dutelarik.

Urtero, merkatuko baldintzengatik interes tasa handiagoa lortuko balitz, errenta hauek estaltzeko esleitutako aktiboen, %1ekoaren gaineko errentagarritasun soberakinaren %100eko parte hartzea izango lukete, hilerio jasotzeko zenbatekoa bazkide guztiei ehunekoa berean handituz.

Ostera, merkatuko baldintzengatik interes tasa hau lortzea ezinezkoa balitz, Entitateak Borondatezko Erreserben kargura ordainduko luke hauek nahikoak balira. Bestela, Entitateko Funts Mutualak jarriko luke betiere legalki ezarritako minimoa errespetatuz. Oreka Plan bat egingo litzateke, zein Eusko Jaurlaritzak ontzat eman eta onartu beharko lukeen.

5.4. BIZIARTEKO ERRENTA GERORATUAK KALKULATZEKO PARAMETRO AKTUARIALAK

Hornidura Matematikoaren kalkulua bazkide bakoitzari banaka egingo zaio 2000P biziraupen taulak erabiliz eta %2,5eko interes tasa teknikoarekin. Dagokion Hornidura Matematikoa esleituko da, gutxienez %4ko kaudimen marjina gehituz.

6. ARTIKULUA: ADMINISTRAZIO GASTUAK

Prestazio Araudi honen bidez zehazten diren planaren administrazio gastuak, batez besteko ondareari atxikitako %0,50ean finkatu dira, IKE edo AKEko inbertsioetako komisio inplizituak barne.

Ehuneko hau Entitateko Gobernu Batzordeak hurrengo ekitaldietarako aldatu ahal izango du. Hurrengo aldaketak BGAE material eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari jakinaraziko zaizkio, honek onar ditzan.

7. ARTIKULUA: BAZKIDE OSO EDO ARRUT, PASIBO ETA ONURADUNEN INFORMAZIOA ETA DEFENTSA

1. Otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen 203/2015 Dekretuaren 52. artikuluari jarraituz, informazio eta defentsa eskubidea gauzatzeko, Entitateko Bazkide Oso edo Arruntek eta Onuradunek ohiko bidetik ezin badute eskubidezko informazioa lortu, Gobernu Batzordeari erreklamazioa aurkeztu diezaiokete, gutxienez honekin:

- a) Eskatzailearen identifikazioa eta, edo bera ordezkatzeko duen pertsonarena, honez gain, eskatzen duen informazioa jaso nahi duen bide eta lekua.
- b) Erreklamazioa gauzatzeko duten gertakarien zehazpena.

c) Lekua eta data.

d) Eskatzailearen sinadura edo beste bidez aipatutako borondate egiazkotasunaren akreditazioa.

2. Eskatera Entitateko bulegoan aurkeztu daiteke edo bertara bidali, paperean edo beste modura, beti ere Entitateak bere egiazkotasun, osotasun, mantentze eta jasotzea bermatzen duelarik.

3. Eskatera Entitateko bulegoan aurkezten denean, eskatzaileak aurkezpen hau egiaztatzen duen agiria eska dezake.

4. Eskakerak Entitateko Zuzendari Nagusiak edo honek esku utzitako pertsonak erantzungo ditu, lehen baino lehen, Gobernu Batzordeari adieraziz honek ospatuko duen berehalako lehenengo bileran. Erreklamazioa Entitateko bulegoan sartu zen egunetik 6 hilabetera ez bada erantzun gaitzetsia izango da, eskatzaileak indarreko legeak onartzen duen bestelako ekintza aurrera eraman ahal izateko.

8. ARTIKULUA. PLANAREN JARRAIPEN BATZORDEA

8.1. OSAERA

Planak Jarraipen Batzorde bat izango du, Gobernu Batzarreko 6 kidek osatuko dutena, honela:

- Bazkide babesleen aldetik, ADEGIK izendatutako 2 ordezkari, Jarraipen Batzordearen ordezkagarritasunaren % 50 izango dutenak.
- Bazkide oso edo arrunten aldetik, ELA, LAB, CCOO eta UGT zentral sindikalek izendatutako 4 ordezkari, Jarraipen Batzordearen ordezkagarritasunaren % 50a izango dutenak. Jarraipen Batzordeko ordezkagarritasun sindikalak Batzar Nagusirako ezarritako proportzionaltasun bera mantendu behar du.

Dena den, 6 kideen artean Erakundeko lehendakaria eta idazkaria egongo dira, eta ordezkatzeko dituzten erakundeen ordezkari gisa zenbatuko dira.

Erakunde bakoitzak ordezkari bat izendatu ahal izango du, titularra bertaratu ezin bada ordezkatzeko duen erakundearen izenean jardun dezan.

Jarraipen Batzordeko kide diren ordezkari horien izendapenak Batzar Nagusirako eskatutako baldintza berak bete behar ditu, eta, gainera, kide horiek izendatzeko lege ezarritako baldintzak ere bete beharko dira.

Jarraipen Batzordeko kideek lau urtez beteko dute beren agintaldia, eta berriz hautatu ahal izango dituzte.

Ordezkariek Erakundeko bazkide ez izateko aukera izango dute.

Jarraipen Batzordeko kideei beren kargua kendu ahal izango die Batzar Nagusiak, eta, era berean, sekretu profesionala gordetzera behartuta egongo dira Jarraipen Batzordeak berak isilpekotzat jotzen dituen gaitetan. Kideak kargurik gabe utzi ahal izango dira Jarraipen Batzordeak espedientea formulatu ondoren.

Zehaztutako aldi hutsik gera daitezkeen karguak betetzeko, ADEGIK edo ELAK, LABek, CCOOek eta UGTk proposamena egingo diote kargutik kendu den kideak ordezkatzeko zuten erakundeari.

Ordezkariek aldatu egin daitezke haiek ordezkatzen duten elkarteak edo erakundeak erabakitzen badu.

Aurreko bi ataletan zehaztutako kasuetan, izendapen berriek arestian ezarritako 4 urteko agintaldia osatzeko geratzen den aldian sortuko dituzte ondorioak, eta egingo den lehen Batzar Nagusian emango da horien berri.

8.2. JARRAIPEN BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

Honako eskumen eta ahalmen hauek izango ditu:

1. Lehentasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planaren kudeaketaren jarraipena egitea.
2. Hala badagokio, lehentasunezko enpleguko planaren araudiak hasieran onartzea eta aldatzea.
3. Bazkideen interesean jardutea, zuhurki, ezagueraz eta arduraz.
4. Planaren kaudimena eta oreka zaintzea, eta onartuta eta prestatzen ari diren prestazioei behar bezala erantzuteaz arduratzea.
5. Araudiak betetzea eta betearaztea.
6. Dagokion plana lekualdatu eta bat egiteari, zatitzeari eta azkentzeari buruz erabakitzea.
7. Hala badagokio, plana txertatuta dagoen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen gobernu-organotan parte hartzea.
8. Inbertsio-printzipioen idatzizko deklarazioaren berrikusketa proposatzea eta, aldi behin, planteatzea.
9. Araudien arabera planteatzen dizkieten erreklamazio guztiei erantzutea eta haiek tramitatzea.
10. Plana borondatezko gizarte-aurreikuspeneko zein erakundetan barneratuko den erabakitzea.
11. Legez ezartzen diren gainerakoak.

8.3. JARRAIPEN BATZORDEAREN DEIALDIA

Jarraipen Batzordea Erakundeko lehendakariak eskatuta deituko da, idatziz, gutxienez bilkura egiteko data baino 10 egun lehenago, dagokion gai-zerrendarekin.

Jarraipen Batzordea bere egoitza sozialean edo izendatzen den lekuan bilduko da, bai aurrez aurre, bai baliabide telematikoen bitartez, ohiko izaeraz gutxienez urtean bi aldiz hiruhileko desberdinetan, edota bereziki lehendakariak deitzen duenean.

Jarraipen Batzordea balioz eratuta geratuko da bilkuran ADEGItik ordezkariek bat gutxienez eta sindikatuen aldetik 3 gutxienez agertzen direnean edo ordezkatuak daudenean.

Lehendakariak ohiz kanpoko Jarraipen Batzordea deituko du Jarraipen Batzordeko kideen erdiek eskatzen dutenean. Urtean gehienez ere modu horretan deitutako hiru bilkura egin ahal izango dira. Deialdiarekin batera bilkuraren gai-zerrenda igorriko da.

Jarraipen Batzordearen herenak puntuak sartu ahal izango ditu ohiko bilkuren gai-zerrendan, baldin eta idatziz jakinarazten badio lehendakariari gutxienez bilkura egin baino astebete lehenago.

8.4. JARRAIPEN BATZORDEAREN ERABAKIAK

Indarreko araudian ezarritako gehiengoaren arabide beraren arabera ebatziko dira gaiak.

Bozketen emaitza ezartzeko ez da kontuan hartuko boto kopurua, ordezkari bakoitzaren ordezkagarritasuna baizik. Ordezkagarritasun hori Batzar Nagusirako ezarritako berbera izango da.

Bazkide sustatzaile eratzaileren, bazkide babesleen edo bazkide oso edo arrunten ordezkariak batzorde horretako beste edozein ordezkariaren eskuetan delegatu ahal izango dute botoa. Horretarako, delegazioa idatziz jakinarazi behar diote Erakundeari, bilkura bakoitzerako bereziki, bilkura egin baino lehen.

Dagokion akta-liburua eramango da.

9. ARTIKULUA: PLANAREN IRAUNGINTZE ARRAZOIAK ETA ONDAREAREN HELBURUA

Planak iraupen mugagabea du. Planaren amaitze arrazoiak ondorengoak izan daitezke :

- Gobernu Batzordeak arrazoimenez adostuta.
- Bazki arrunt eta onuradun ezagatik.
- Plan aktuarialaren berrikustearen ondorioz aurrera eramane beharreko bideragarritasun neurrien ezintasun idatzia.

Gertakari hauetako bat ematen bada, Entitateko beste plan batera intsuldatuko dira eskubide ekonomikoak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arautegi hau baimentzeko datan biziarteko errenta geroratu duen aldi baterako finantza-errenta kobratzen ari diren bazkideei aukera emango zaie beren baldintzei eusteko edo beren finantza-errentaren hileko zenbatekoa % 6,24 handitzeko eta biziarteko errenta geroratuari uko egiteko. Aukera hori baliatzeko epea 12 hilabetekoa izango da Eusko Jaurlaritzak arautegi hau onartzen duenetik.

AZKEN XEDAPENA. INDARREAN SARTzea

Arautegi hau BGAE materialaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak onartzen duenean sartuko da indarrean.